



LANDA EREMUKO TEKNOLOGIA HOBETZEN

Tolomendi elkarteak Albiztur, Altzo, Baliarain, Berrobi eta Orendainen Dinamiza TIC proiektua abiarazi du »6

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2010-09-07

VIII. URTEA 2.067. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Alkizan larunbata arte izango dute jai giroa; herenegun, besteak beste, txakolin dastaketa egin zuten. S.GOMEZ

IKASTURTE HASIERAN ERE JAI GIROA HERRI ETA AUZOETAN

JAIK Bihar hasiko dira Bedaio eta Zizurkilgo Elbarrenako festak; Alkiza, Lizartza eta Elduainen, berriz, asteburu luzea izan dute 4-5



Unai Otaño ibartarra bikain aritu zen asteburuan. HITZA

III. Mailako txapela jantzi du Otañok

AIZKORA II. Mailan aritzeko aukera eskuratu du; Maila Nagusian hirugarren egin zuen Mujikak 2

ETA erakundearen adierazpenak emandakoak

POLITIKA Eskualdeetako alderdi eta sindikatu desberdinen iritziak bildu ditu HITZAK 7

argazki lehiaketa

XII. HITZA
Argazki
Lehiaketa
Animatu eta parte hartu!

NORA BIDALI?

argazkiak@tolosaldekohitza.info helbide elektronikora
Irailak 30 arte

HITZA udarako argazki lehiaketa

1. Saria

2. Saria

3. Saria

Parte-hartze HITZako m...

en bi atzeko

en arte ko du

E Emaitzak

PILOTA

Amezketako XXI. Joxean Tolosa Txapelketa, finalerdiak

KADETEAK

Artola (Alegia)	18
Erostarbe (Urretxu)	15
Tolosa (Anoeta)	18
Iribarria (Arama)	14

GAZTEAK

Jaka (Lizartza)	18
Juanenea (Saldias)	3
Arratibel (Ataun)	18
Bendoiro (Erasun)	12

NAGUSIAK

Jaumarena (Leitza)	18
Senperena (Bidegoian)	14
Onsalo (Areso)	18
Echeverry (Hazparne)	8
* Finalak hurrengo igandean, hilaren 12an, jokatu dira Amezketako Larrunari pilotalekuan.	

Lekeitioko Txapelketa

FINALA

Irujo-Barriola	22
Bengoetxea VI-Apraiz	14

ARRAUNA

Kontxako Bandera

LEHEN IGANDEA

1. Kaiku	19:12"
2. Urdaibai	19:14"
3. San Juan	19:22"
4. Orío	19:30"
5. Pedreña	19:31"
6. Astillero	19:32"
7. Hondarribia	19:34"
8. Donostiarrak	20:20"

* Eskualdeko ordezkariak Astilleron aurkitzen dira: Anjel Larrañaga, bigarren entrenatzailea, eta Ugaitz Mendizabal, bigarren patroia.

AIZKORA

III. Mailako Euskal Herriko Txapelketa, finala

1. Unai Otaño (Ibarra)	12:57"
2. Xabier Zaldúa	14:38"
3. Julen Kañameres	15:36"
4. Arkaitz Jauregi	15:44"
5. Juanjoxe Erkizia	17:09"
6. Asier Pellejero (Areso)	18:23"

Maila Nagusiko Gipuzkoako Txapelketa, finala

1. Iñaki Azurmendi	32:56"
2. Joxemari Olasagasti	34:39"
3. Jexuxmari Mujika (Ibarra)	35:27"
4. Joseba Otaegi (Zizurkil)	37:57"
5. Luis Txapartegi	39:02"

Gazte Mailako Euskal Herriko Txapelketa, finala

1. Eloy Corchero	16:29"
2. Eneko Saralegi (Leitza)	16:44"
3. Eneko Otaño	19:42"
4. Gaizka Lopez	24:22"

TXINGA-EROATEA

Nafarroako Txapelketa

1. Miguel Angel Sukunza (Leitza)	14 plaza eta 0,65m
2. Simon Thomas Callaghan	9 plaza eta 6,50m
3. Imanol Martin	7 plaza eta 4,50m



Otaño, Zaldúa eta Kañameres sari banaketa ekitaldian. HITZA

Unai Otañok goranzko bideari ekin dio III. Mailako txapelaren babesean

Aizkora » Asteburuan

Maila Nagusiko Gipuzkoako Txapelketa eta Gazteen Mailakoak ere jokatu dituzte.

ERREDAKZIOA

Aizkora munduan hiru proba garrantzitsu jokatu ziren asteburuan. Eskualdeko kirolarien ordezkariak hiruretan izan genuen. Txapela jantzi zuen bakarra Unai Otaño ibartarra izan bazen ere, lan txukuna burutu zuten aizkolaria gehienek.

III. Mailako txapela Ibarra

Unai Otaño ibartarrak aurrerapausoa eman zuen berriro Euskal Herriko Maila Nagusira igotzeko. Larunbatean, eskailerako lehen maila igo zuen, III. Mailako txapelantziak. Ondorioz, heldu den sasoiaren Euskal Herriko II. Mailan ariko da. Otañorekin batera Xabier Zaldúa zumarragarra lortu zuen Bigarren Mailarako txartela. Asier Pellejero aresoarra berriz, azken postuan sailkatu zen.

Aurrez hiru kanporaketa jokatu ondoren, 29 aizkolarieetatik sei onenek jokatu zuten larunbatean finala, Orozkon (Bizkaia). Sei aizkolariorik aitu ziren finalen: Juanjoxe Erdozia (Etxarri-Aranatz, 38 urte), Arkaitz Jauregi (Iardua, 26 urte), Julen Kañameres (Berriozar, 20 urte), Unai Otaño (Ibarra, 33 urte), Asier Pellejero (Areso, 29

urte) eta Xabier Zaldúa (Zumarraga, 32 urte).

Finalean bost pago-enbor, hiru kanaerdiko eta bi 60 ontzako, ebaki behar izan zituzten. Otañok 12:57 segundo behar izan zituen lanak amaitzeko. Bigarrenak, Zalduak, ia bi minutu gehiago behar izan zituen.

Mujika hirugarren; Otaegi laugarren

Iñaki Azurmendi Arriarangoak (Beasain) irabazi zuen Maila Nagusiko Gipuzkoako Txapelketa hirugarren aldiz igandean, Donostian. Joxemari Olasagasti txapel-dunordeari, minutu bat eta 43 segundoko alde aterazioz.

Donostiako Trinitate Plazan jokatu zen txapelketa, eta ondoko bost aizkolariorik lehiatu ziren: Iñaki Azurmendi (Arriairan, Beasain; 38 urte); Jexuxmari Mujika (Ibarra; 33 urte), Joxemari Olasagasti (Igeldo, 52 urte), Joseba Otaegi

(Zizurkil; 27 urte) eta Luis Txapartegi (Aizarna, Zestoa; 40 urte).

Aizkolaria bakoitzak hamarna pago-enbor ebaki behar zituen: lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko.

Olasagasti aritu zen probaren buruan aurreneko lau egurretan, Azurmendi izan zuen azken atzetik, egur batean (bigarren) Otaegi aurreratu bazitzaion ere. Lan erdian, seigarren enborra ebakita, aurrea hartu zuen Azurmendik eta amaiera arte eutsi ahal izan zion aldeari. Hain justu ere, lan erdian igarota jarri zen Mujika hirugarren postuan, eta Ibarra oso bigarren zati aipagarria egin ondoren, podiumean sartzea lortu zuen.

Eneko Saralegi bigarren

Leitzako Taloaren egunean jokatu zen proba, Gazte Mailako Euskal Herriko Aizkora Txapelketa, lehen aldiz Eloy Corchero Araia

(Araba) aizkolaria gazteak (17 urte) irabazi zuen igandean. Arabarrak lehen aldiz hartu zuen parte txapelketan eta 15 segundoko alde ateratu zion Eneko Saralegi iazko txapel-dun leitzarrari.

Lau aizkolaria gazte aritu ziren lehen: Eneko Saralegi (Leitza, 17 urte), Eneko Otaño (Beizama, 16 urte), Eloy Corchero (Araia, 17 urte) eta Gaizka Lopez (Laudio, 18 urte).

Aizkolaria bakoitzak seina pago-enbor ebaki behar izan zituen: lau 45 ontzako eta bi kanaerdiko.

Bigarren kanaerdiko ebaki ondoren, soilik Lopez geratu zen atzean. Zoritxarrez, lehen kanaerdikoan hautsi egin zitzaion aizkolararen kirtena laudiotarrari, eta segundo dezentegaldutik zuten, trabatuta geratu baitzitzaion aizkolararen altzairuzko zatia. Lehen kanaerdiko (hirugarren enborra) amaituta nahiko parean zebiltzan hiru aizkolaria, baina azkenaurrekoa ebakita, nabarmen geratu zen zein bi aizkolaria ariko ziren txapela jantzeko lehen: Corchero eta Saralegi.

Bien artean, bi segundoko alde zegoen soilik, baina azken kanaerdikoari indartsuago ekin zion Corchero eta azkenean 15 segundoko aldeaz nagusitu zen Araia; oso lehia txalogarria burutu zuten biak ala biak Leitzako eguzkipean. Saralegi iazko txapel-dunak, 9 segundoko hobetu zuen iazko denbora, baina ez zen nahikoa izan Corchero menderatzeko.

JEXUXMARI MUJIKAREN ERREAKZIOA BIKAINA

Jexuxmari Mujika helburu batekin joan zen Donostiara: «Mailari eustea zen nire asmoa». Proba jokatu ostean, Gipuzkoako Maila Nagusian jarraitu du ibartarrak.

«Hasierako bi egurrak seko xamarrak tokatu zitzaizkidan. Denbora asko galdu nuen eta azken postuan ekin nion hirugarren enborrari. Etsita bezala aurkitzen nintzen, baina hirugarrenen buelta ematen hasi nintzen. Lan erdian Txapartegi eta Olasagasti bakarrik nituen aurretik, azken hau 20 segundora gainera. Aurrea hartzea posible zela ikusi nuen eta indarrean hasi nintzen, baina gehiegi, gero leheritu egin bainintzen. Hala eta guztiz ere, helburua lortu nuen eta gustura aurkitzen naiz».

Jexuxmari Mujikak azkenik, Unai Otaño herrikidea zori ondu nahi izan zuen, «maila handiko» aizkolaria dela gogoratuz.

Carlos Peñak Ricobayoko urtegia zeharkatu du 18 ordutan

Tolosa » 50 kilometroko distantzia bi egunetan egin du; ostiralean hasitako erronka beraz, larunbatean amaitu zuen.

ERREDAKZIOA

Zamoran (Espainia) aurkitzen da Ricobayoko urtegia. 50 kilometro ditu eta Carlos Peñaren erronka berriaren eskenatokia izan da asteburuan.

Proba honekin, tolosarrak «bakearen eta ingurugiroaren aldeko» aldarria zabaltzeko nahi izan du. Ricobayo bi egunetan, 18 ordutan, zeharkatu du Peñak. Bere lorpenen zerrenda luzean izen berri bat jarri du igerilariak.

Bi egun, 18 ordu

Carlos Peña abenturazaleak bizkarrez egiten du igerian, neoprenoaren eta oinetako hegatsen laguntzarekin.

Ricobayoko erronka modu horretan burutu du tolosarrak, «arazo larriegirik gabe». Lehen egunean 30 kilometro burutu zituen 9 ordutan. «Zati batean sabel arazok izan ditut baina bestela dena ongi joan da» azaldu zuen igerilari tolosarrak egunaren amaieran.

Bigarren egunean, aurreikusitako bezala, 50 kilometroak egitea lortu zuen Peñak. Horretarako, larunbatean, azken 22 kilometroak egin behar izan aurkitzen zen. Haizea aurka izan baldin bazuen ere, ez zion inongo eragozpenik sortu tolosarrari.



Carlos Peña tolosarra Ricobayoko urtegian. HITZA

Astillero arraun taldeak ia agur esan dio Kontxako Banderari

Arrauna » Tolosaldeko neskek hilaren 11n ekingo diote Kontxako Banderari; 18:00etan jokatu da sailkapen proba.

ERREDAKZIOA

Iragan ostegunean Kontxako Banderako sailkapen proba jokatu zen Donostiako badian. Bertan eskualdeko ordezkari ugari elkartu ziren baina lehiaren amaieran, bik bakarrik egin zuten aurrera: Anjel Larrañagak eta Ugaitz Mendizabalek. Biak Astillero taldeko kideak dira, bata bigarren entrenatzailea eta bestea bigarren patroia.

Lehen igandeko jardunaldia

ikusitako ondoren, hilaren 12an jokatu den bigarren goian zeresan gutxi edukiko dute gure azken ordezkariak, Astillero Banderari ia agur esan baitzuten joan den igandean. Kaiku izan zen onena lehen jardunaldi honetan eta Astillerori 20 segundoko aldea atera zioten bizkaitarrek.

Asteburuan nesken txanda

Hilaren 11n eta 12an Tolosaldeko neskek Kontxako Banderan egongo dira. Lehenik sailkapen proba jokatu dute eta ondoren, gauzak ongi joaten baldin badira, Banderaren lehia. 14 trainerutatik lauk bakarrik jokatu dute 12ko estropada. Larunbatean lehia 18:00etan hasiko da eta igandean 11:00etan.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

www.euskalherriko **PLaza**.com

MERKE ALDI AN!

skunkfunk %20

Lehen: 31,53 € Orain: 25,22 €

Lehen: 19,83 € Orain: 15,86 €

Lehen: 66,12 € Orain: 52,9 €

okot %20

Lehen: 28,48 € Orain: 22,78 €

Lehen: 57,17 € Orain: 45,74 €

Lehen: 28,48 € Orain: 22,78 €


20 €

20 €

20 €

TTAK

2 elastiko 35 €



Lizartzan, besteak beste, antzerkia izan zuten arratsaldean eta Alkizan, baiko in dastaketaren aurretik, herriko helduen biokleta lasterketa izan zen. [SARA GOMEZ](#)

Festa batzuk bukatu baino lehen, Bedaio eta Zizurkilaren hasiko dira

Jaiaik » Alkiza, Lizartza eta Elduainen herriko festen azken egunak izango dituzte. Bedaio eta Zizurkilgo Elbarrenako jaiaik bihar hasiko dira.

ENBETAZAK
Alkizan, Elhuainen eta Lizartzan asteberu bete izan dute herriko festetan. Era guzietako ekitaldiak izan dituzte eta atsedeen egunak nareko, asteazkena izango dute festetako egun handia. Alkizan, herritar heldu batzuek goiza bitartean gaitzen hasi zuten. Ondoren, Txakolin dastaketan zuten. Arratsaldean, Asto Lasterketa izan zen eta Beteranoen arko XX. Hizkuntzapeleketako finalak jokatu zituzten. Alkizarrek ordea, atsedeen egunak tarteak izan zituzten. Arratsaldean, Zaldien Doma ilusai ahal izan zuten eta jarrailan, dantza ikuskizuna eta trikioa izan zituzten herriko plazan. Festa bukatzeko, bi eguneko atsedean osten, azken eguna bihurtu izango dute. Lizartzan, goizadiaren ostean, herriko gazteen pilota partiduez eta zesta punta partiduez guzuztu zuten. Ondoren, giteoren leiguztarren poteoa egin zuten. Arratsaldean, Mus Txapelketa jokatu zuten eta dantza sokai ikusleto auz-

hera izan zen. Ondoren antzerkia izan zuten. Atzokioz gaitzarrek errekupezzetako ballatu zuten. Gaur, 19:30ean, Lizardi Txistulari Taldearen kaleria egingo dute eta festi amaierea emateko azken eguna bitartekoa izango dute. Izaskun auzoan, igandean, Dabaino ez zuten izan.

Zizurkil eta Bedaio

Aste honetan ere, jai giroa nahi duenak izango dira. Bedaio eta Zizurkilgo Elbarrenako jaiaik bihar hasiko baitira. Bedaio, bihar hasiko da eta ostegun atsedeen eguna izango dute. Jarrailan, ostriaketik igandera festa giroan margiduloko dira. Bitarteko egun handia izango da Bedaio. Urte askoan taberna-rik gabe egon ostean, Abatezte jate-berna zahalduko baitute. Gaitzarrean, adin tarte guzietarako egingo duen jantzia. Zizurkilgo Elbarrena berriz, bihar hasi eta igandean bitarte, atsedeen gaitzarre festak sartuko da. Hasiera, 19:00etan, Zizurkilgo III. Kros Mistoaren emango diote. Izan-emaitea ordubate lehenago zabalduko dute eta 7 kilometroko ibilbidea izango da. Hortik aurrera, gaitzarreko ekintzak izango dira.



Eduaiako ostriakoko kontzertua oso jendetsua izan zen. Igande arratsaldean, Zaldien Doma izan zuten. [HTZA SARA GOMEZ](#)

» BUKATZEAR ETA HASTEAR DAUDEN JAIEN EGITARAUAK

ALKIZA
Bihar
■ 12:00. Meza Nagusia.
■ 12:00. Toka txapelketa haurren arte.
■ 14:00. Jubilatuen bazkaria Ostaturtatetean izango da, Udalak antolatuta.
■ 17:00. Gazteboen arteko pilota partidak.
■ 18:00. Toka Txapelketa helduen artean. Ondoren, trikioa Jon Ostoloz eta Aitzol Txapeltegirkin.
Iraliak 10, ostirala
■ 17:00. Patin eta Puhonin pailozak.
■ 18:00. Tripotea mozarroturik.
■ 21:00. Berritoka.
■ 23:00. Karaokea.
■ Ondoren. Erromeria Ingo al deuz taldearenkin.

Iraliak 11, larunbata
■ 10:30. Bizkleta lasterketa haurretzat.
■ 17:00. Ion Zabala eta Izaskun Mendizabalaren oronenez, herritarren arteko Herri Kirio saioa egingo dute.
■ 18:00. Sagardo dastaketa.
■ 23:00. Bertsolariak X. Lizaso, A. Egaña, A. Arzallu, M. Lujanbo, A.M. Pelagariako eta I. Zubeldia. Gaitzarrean: A. Agirre.
■ Ondoren. Berberna Kantuki taldearenkin.

ELDUAIN
Bihar
■ 11:00. Meza nagusia Santa Ka-

talina elizan. Ondoren, hamaitaketa Kontzertu taldean.
■ 17:00. Antzerkia herriko umeen eskulak. Ondoren, Falkoneria (Cereira) ikuskizuna. Eta festi amaierea emateko Gontzi eta bere animalak izango dira.
LIZARTZA
Gaur
■ 10:00. Kalejira Lizardi Txistulari taldearenkin.
Iraliak 8, asteazkena
■ 10:00. Goizdela, Lizardi Txistulari taldearenkin.
■ 11:30. Gazteboen pilota partidak.
■ 11:45. Helduen hamaitaketa Txurru Elkartearen.

BEAIO
Bihar. Amabizjain eta jubilatuen eguna
■ 10:00. Suziria bota eta kanpakaik jokoz ditzite.
■ 11:00. Meza Nagusia. Ondoren, Mañukorta eta Zeborio bertsolariak.
■ 12:00. Abatezte jate-berbanaren irekiera festa egingo dute. Bertan giro alaitzeko, Mañukorta eta Zeborio bertsolariak eta Laja eta Landakanda trikilariek izango dira.
■ 14:00. Herriko jubilatuen omen-egunaren herrikoia.
■ Ondoren. Bertsolarien eta trikilarien bigarren saioa.

■ 17:00. Pilota partidak. Bedaioko gazteak Alegio gazteen aurka arko dira.
■ 17:30. Ipuin kontalaria.
■ 19:00. Toka Txapelketa.
■ 21:00. Asteleheneko Neska eta mutilen osatutako bikotizatza.
■ 20:00. Zahag arda (edaria elkartek jarriko du).
■ 23:00. Erromeria izango da Elustondo Anai-aren trikilariekin. Goizaldiaren ondoren hartzeko barbururi zopa eta bokolatea banatuko ditzute.
Iraliak 11, larunbata
■ 16:00. Ume jolasak. Jokoak, buruhandik eta bokolada.
■ 21:00. Herri afaria nagusia.
■ 23:00. Ansoerri eta Larrañaga eta Izer eta Ababer trikilariekin erromeria, ordu traka bitarte. Goizaldiaren ondoren hartzeko barbururi zopa eta bokolatea izango da.
Iraliak 12, igandea
■ 11:00. Meza nagusia. Ondoren, hamaitaketa.
■ 13:00. Bedaio XXI. Txirindulari opera (federatu gabeko entzazu).
■ 18:00. Herri kirio jaiak eta Herri jostaketa: Ainar Irigoin, Aizkolariak: Larretxea eta Floren Nazabal. Ondoren Bedaiozartek Bedaioko Ingeuru eta dantzakiko dute. Jarrailan, Xanti-Katzen trikilariek.
■ 21:00. Alafia (Mondjoko eta andri-jostak) Artuko Elkartearen trikilariekin alaiturik.

■ 00:00. Jalei amaiera emateko suziria botako dute.
ZIZURKIL
Bihar
■ 19:00. Zizurkilgo III. Kros mistoa Neska eta mutilen osatutako bikotizatza.
■ 20:30. Txurrua eta Melkotoariaren aurkezpena. Abulduko Kultur Etxetik, Patrikanzulo eta Txurruok biusen eskulak. Ondoren, buruhandik eta kalejira, trikilariek alaiturik.
■ 21:30. Herri afaria Pasus jate-berbanaren eskulak plazan.
■ 03:00. Karaoke plazan.

Iraliak 9, osteguna
■ 11:30. Meza nagusia.
■ 12:00. Herriko haurren eskulak dantza ikuskizuna.
■ 13:00. Jubilatuen jokoak: toka eta igela.
■ 14:00. Jubilatuen badaria. Abulduko jateberna izango da.
■ 17:00. Superpalet haurrentzako ikuskizuna. Ondoren umeentzako merienda eta buruhandik.
■ 20:00. Kantuak. Herri tarak eskulak antziaz alaituko dute herria.
■ 19:00. Herri kirio jaiak eta Herri jostaketa: Ainar Irigoin. Aizkolariak: Larretxea eta Floren Nazabal. Ondoren Bedaiozartek Bedaioko Ingeuru eta dantzakiko dute. Jarrailan, Xanti-Katzen trikilariek.
■ 21:00. Alafia (Mondjoko eta andri-jostak) Artuko Elkartearen trikilariekin alaiturik.

Iraliak 10, ostirala
■ 11:30. Haur jolasak. Ondoren, buruhandik.
■ 14:00. Gazte bazkaria plazan

izango da eta ondoren, Gazte jokoak egingo ditzute.
■ 19:00. Gorritoren abereak, Aurmeran.
■ 19:00. Zozogor batukada bilboi da.
■ 23:00. Kontzertuak: Zaurik, The Sudaka eta Deskontrol.
Iraliak 11, larunbata
■ 11:00. Jokolanda haurrentzako jolasak. Ondoren, buruhandik.
■ 11:30. Arzuin txurrik lehian Dizanera futbol zelain.
■ 13:00. Lorontzi erakusketak eta irabizaketa.
■ 14:00. Herri bazkaria.
■ 17:00. Buzen arteko pentatloia. Koadriek bost jokotan parte hartuko dute, jokotako bat asto karrera izango da.
■ 19:00. Asto karrera.
■ 00:00. Trakets berbera taldea gozailde arte. Mozoergoa izango da.
■ 07:30. Diana trikixarekin.

Iraliak 12, igandea
■ 11:30. Sardinkak eta sagardo dastaketa Urkamendi elkartean eskulak.
■ 13:00. Motozerrarekin egurrari formak emanez erakustaldia.
■ 19:00. Herri tarak dantza eta Melkotoari saioa. Honez aurretik herriaren zehar kalejira bilboi dira.
■ 20:00. Berba saioa plazan: Anjel Mari Pelagariako, Aitor Mendiluze, Suatzi Kolina, Xabier Saldieria, Iker Zubeldia eta Arria Agirre. Gaitzarrean: Jon Zaldia.
■ 23:00. D) Bull plazan.



Talo Egunean, talorik onena saritu zuten

LEITZA » Igande goiza, talo usainarekin esnatu zen Leitza. Beste behin, Pizadako Partzuergo Turistikoa eta Leitza Letaikako Nafarroako Gobernu Turismo eta Kultur departamentuaren laguntzaz, Talo Eguna antolatu zuten. Goizeko 10:00etan emari zitaiban hasiera jarri. Baserriko trenen

eta animalien erakusketak eta artistaren postuak ere izan ziren. Tokiaren, gurdiaren bitarteko aukera izan zuten. Hala ere, Leitza plaza gerturatu zirenean, talorik onena saritu zuten. Talo Eguna izaki, Talo lehianetako jokatu zuten eta turten talorik onena Sagarko Josepa Abisueru izan zen.

epaimahaiaren esanetan. Bertan jatekarekin, talorik oneneko plateraren erakusketak egin zuten eta 4. lurren bitarteko haurrek talo talerra ere izan zuten. Tartean, Herri kirio erakustaldiak ere izan ziren eta baita Aizkor eta Txingra txapelketa ere. [SARA GOMEZ](#)

Bi neskatori sexu ukituak egitea egotzita 42 urteko gizon bat atzeman dute

Gizartea » Herenegun arratsaldean gertatu zen uestezko eraso; 10 eta 11 urte dituzte eraso jasan zuten neskatoek.

ERREDAKZIOA

Ertzaintzak 42 urteko gizonzkoa atxilotu zuen herenegun arratsaldean Villabonan, 10 eta 11 urteko bi neskari sexu ukituak egin zizkielek leporatuta.

Herenegun arratsean izan zen

uestezko eraso, bi neskatoak den da batera zihoazela. Gaztetxoek esan dute gizonzkoak atzetik segitu zela, bizikletan, eta euren parretik pasatu zenean bati bularrean ukitua egin ziola. Bi gaztetxoak dendara sartu zirenean, gizonzkoak gauza bera egin zuen, eta euren ukituak egiten ahalegindu zen. Neskatoak orduan plazara joan ziren, euren gurasoengana.

Horiek ertzain etxean parte sartu ondotik atzeman egin zuten poliziek gizonzkoa, plazatik gertu.

Zortzi hilabeteko kartzela eskaera atentatu baten biktima izan zela esan izanagatik

Leitza » Guardia zibilak bere buruari tiro egin ziola eta itxurazko lehergailu bat jarri zuela dio fiskalaren agiriak.

ERREDAKZIOA

Ministerio Fiskalak zortzi hilabeteko kartzela zigorra eta 2.400 euroko isuna eskatu ditu Leitza atentatu baten biktima izanaren itxura egin zuen guardia zibilaren-tzat. 2009 urteko azaroaren 30ean, uestez bere burua tirokatu zuen be-saurrean, ondoren erasotua izan zela salatzen.

Fiskalaren agiriak dioenez, bi pertsonak tirokatua izan zela esan zuen guardia zibilak, eta lehergailu bat jarri zutela kuartelean. Agiriak ekintza hauek guardia zibilak be-rak egin zituela onartzen du.

Festetako txekorraren zozketa egingo dute bihar udaletxean

Amezketako » Lehen zozketako irabazlea agertu ez zelako egingo dute bigarren; etzi emango dute zenbakiaren berri.

ERREDAKZIOA

Amezketako Akelok guraso elkarretik jakinarazi dutenez, Amezketako festetako txekorraren zozketaren irabazlea agertu ez denez, bigarren zozketa bat egingo dute. Bihar izango da bigarren zozketa, udaletxean.

Zozketa horretan iritetan den zenbaki sarituaren berri TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkarian argitaratuko da ostegun, hilaren 9an. Zenbaki saritua duenak 15 eguneko epea izan-go du aurkezteko, bestela, saria galduko lukeela jakinarazi dute.



Albiztur bezelako landa eremuko herrietan maiz izaten dira arazoak teknologia berriak erabiltzeko orduan. EEZEIZA

Teknologiarekin landa eremuan dauden hutsuneak konpontzeko ekimena abian

Gizartea » Tolomendiren eskutik, Albiztur, Altzo, Baliarrain, Berrobi eta Orendainen hasi dira proiektu berriarekin.

ERREDAKZIOA

Tolomendi Tolosaldeko Landa Garapen Elkartearen ekimen berria hasi da garatzen. Dinamiza TIC izena du proiektuak, eta landa eremuetan informazio eta komunikazioaren teknologiaren egoera zertan den aztertu eta dauden gabeziak betetzea du helburu.

Tolosaldeko bost udalerri-tan jarri dute martxan lehenabizi proiektua, Albiztur, Altzo, Baliarrain, Berrobi eta Orendainen, hain zuzen. Horietan ekimena garatu ostean erabakiko dute beste udalerrietara zabalduko duten.

Proiektua martxan jartzeko IKT (Informazio eta Komunika-

zioaren Teknologia) dinamizazioaren irudia sortu dute Tolomendin. Hain zuzen ere, Joxi Balerdi izango da ekimenaren ardura izango duena. Dinamizazioa berria astero izango da aipaturiko bost udalerrietako udaletxeetan, eta horretaz gain, helbide elektronikoko bat eta telefono zenbaki bat jarri du herritar guztien eskura.

Bere egitekoa Internet, telefono mugikorrek eta bestelako teknologia erabiltzeko dauden arazoak irtenbidea ematea izango da. Hala, herrietan dauden baliabideak zehaztuko ditu eta egokien aplikatzeko bidea aztertu; informazioa eta komunikazioaren teknologiaren eguneroko erabilpenean biztanleria sentsibilizatu du; udalerrietako web orrien erabilpena bultzatu du; eta Internet edo Banda Zabaleko (ADSL, WIMAX...) estaldura-itzaletzeko zehaztuko ditu eta ezetzatzeko neurriak hartu.

» DATUAK

- **Ekimena.** Dinamiza TIC.
- **Helburua.** Internet, telefono mugikorrek eta bestelako teknologia erabiltzeko arazoak konpontzea. Albiztur, Altzo, Baliarrain, Berrobi eta Orendainen hasiko dira.
- **Harremanetarako.** Udaletxean, dinamizatic@tolomendi.net-en edota 688 81 83 49 zenbakian.

Herritarren parte-hartzea

Hori guztia posible egin edota behar bezain ondo garatzeko, udalerriaren informazio egokiaren lortu nahi dutela azaldu dute, eta horretarako herritarren laguntza ezinbestekoa dutela.

Horregatik, gaiarekin kezkatuta dauden edo interesa duten herritarrek animatu nahi dituzte proiektuaren berri izatera, eta ondoren, proiektu martxan jarri den bost udalerrietako informazioa eskaintzera.

Hilberria

JOSE RAMON IRIONDO ZABALETA

(Maria Luisa Egurenen alarguna)

Arnasestuka bide malkartsuan barna baina iritsi zara Maluxarengana



LEGAZPI
2010eko
irailaren 7a

Larunbatean hil zen 73 urte zituela. Familiak egun hauetan jasotako elkartzasuna eskertu nahi du

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAk Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

» ERREAKZIOAK

1. Zer balorazio egiten duzu ETAk argitara eman duen agiri berriaren inguruan?

«Estatuak zer egiten duen esperoan geratzen gara»

Mikel Zabalo
LEITZAKO ALKATEA (EZKER ABERTZALEA)

1. Oso positiboa da ETAREN agiri berria, ekarpen egokia baita. Honenbestez, une honetan Estatuak zer egiten duen esperoan geratzen gara.

«2011ko hauteskundeetan ondorioak izango ditu»

Jokin Bildarratz
TOLOSAKO ALKATEA (EAJ)

1. ETAREN adierazpenak ondorioak izango ditu 2011ko udal eta foru hauteskundeetan. Ondorio horiek onak izatea espero dut. Zuhurtzia behar da.

«Garrantzitsua da ez duela su-etena hitza erabili»

Patxi Zabaleta
ARALARKO BOZERAMAILEA

1. Garrantzitsua eta positiboa da hau, eta, gainera, erakunde armatuak ez du su-etena hitza aipatu, ekingintza armaturik ez duela egingo dio bertan.

«Herri honetan ematen ari den bidea atzeraezina da»

Onintza Lasa
TOLOSAKO ZINEGOTZIA (EA)

1. Baikortzat jotzen dugu. Aurrerapauso bat da, ez bakarra, baina bai garrantzitsua. Herri honetan ematen ari den bidea atzeraezina da une honek duen garrantziagatik.

«Gehiengoak ETAREN desagerpena espero du»

Andoni Iturzaeta
TOLOSAKO ZINEGOTZIA (HAMAIKA BAT)

1. Berri ona da, baina guk eta eskual gizaratearen gehiengoak eskatzen eta espero duena ETAREN desagerpena da. Jendea jada nazkatuta dago.

«Agiria ez da nahikoa eta ez da zehatza ere»

PSE-EE

1. Ez da nahikoa, eta ez da zehatza, ez baitu epeez hitz egiten eta egiaztatzeaz ez da mintzo. ETAK ekinbide terroristak utziko duela dioen agiria besterik ez dugu nahi.

«Sortutako itxaropenen ondoren ez da nahikoa»

Ezker Batua

1. 40 urteko indarkeriaren eta azken aldian sortutako itxaropenen ondoren, ez da nahikoa ETAK soilik argitzea hilabeteak daramatzala atentaturik egin gabe.

«Ezker abertzalearen apustu politikoa indartzen du»

LAB sindikatua

1. Euskal Herrian agertoki berria zabaltzeko urrats garrantzitsua da. Erabakiak ezker abertzalearen apustu politikoa bultzatzen erabakigarria ematen dio.

«Koherentea da gizarateak egindako eskaerekin»

ELA sindikatua

1. Koherentea da gure gizarateak egindako eskaerekin, baina su-etena behin betikoa izan behar du. Madrilgo gobernuak ere erabakiak hartu beharra dauzka.

«Garrantzia handiko urratsa da ETAK emandakoa»

Amnistiaren aldeko mugimendua

1. Azken hilabeteetan pauso garrantzitsua eman dira, eta ETA-k egindako iragarpena eszenatoki berri bat zabaltzeko garrantzia handiko urratsa da.

«Mugimendu taktikoa izateko itxura guztia du»

Alderdi Popularra

1. Adierazpen honek mugimendu taktikoa izateko itxura guztia dauka. Bestalde, horrelako egoerak bere burua legitimatzeko erabiltzen ditu ETAK.

Politika » Herenegun, agiri eta bideo baten bitartez, «eraso ekingintza armaturik» ez burutzeko erabakia argitara eman zuen ETAK; orduetik, zeresana eman du gaiak.



BBC-ra eta 'Gara'-ra igorritako bideo eta agiri baten bitartez eman du ETAK bere erabakiaren berri. HITZA

» ETA-K EMANDAKO SU-ETENAK

■ **1989ko urtarrilaren 8an.** Bi asteko su-etena izan zen, alde baka-rekoa. Espainiako Gobernuak Aljerren negoziaketei ekin zez gero lutzatzeko eskaintzarekin.

■ **1989ko urtarrilaren 23an.** Bi alderdiek elkarriketei ekitela eta su-etena mantentzea hitzartu zutela jakinarazi zuen ETAK agiriari. Bi hilabetez ETAK ez zuen atentaturik egin; eta Espainiako segurtasun indarrek ez zuten inor atxilotu.

■ **1989ko martxoaren 27an.** Espainiako Gobernuarekin hitzartutako bi hilabetezko su-etena beste hiru hilabetez luzatzea erabaki zutela jakinarazi zuen ETAK. Apirilaren 4an hautsi zuen su-etena.

■ **1996ko ekainaren 23an.** Jose Maria Aznar Espainiako gobernu-buru izendatu zutenean, astebeteko su-etena eman zuen ETAK. Gatazkari irtenbide negoziatua emateko eskatu zion.

■ **1997ko azaroaren 20an.** Guardia Zibilak Jose Antonio Ortega Lara funtzionarioa askatu eta lau hilabetera, Espetxe Frontean su-etena aldarrikatu zuen ETAK.

■ **1997ko urtarrilaren 1ean.** Ertzaintzaren kontrako ekingintzen etena aldarrikatu zuen ETAK. Ekainaren 23an jakinarazi zuen menia hori amaitutzat eman zuela.

■ **1997ko irailaren 18an.** Lizarrarako Garaziko prozesua bultzatzeko, mugarik gabeko aldarrikatu zuen ETAK. Hurrengo urteko abenduaren 23an amaitu zen etena.

■ **2004ko otsailaren 18an.** Urte horretako urtarriletik Katalunian atentaturik ez egitea erabaki zuela jakinarazi zuen ETAK.

■ **2005eko ekainaren 18an.** PP eta PSOEko hautetsien kontrako atentatuak etengo zituela jakinarazi zuen ETAK.

■ **2006ko martxoaren 24an.** Su-etena irauunkorra aldarrikatu zuen ETAK. 2007ko ekainaren 6an amaitutzat eman zuen.

ERREDAKZIOA

Duela hilabete batzuk «eraso ekingintza armaturik» ez egitea erabaki zuela jakinarazi zuen ETAK herenegun. Erresuma Batuko BBC komunikabide kate publikora eta Gara egunkarira bidalitako bideo eta agiri banaren bidez igorri zuen mezua.

Idatzian honela zioen erakunde armatuak: «ETAK jakinarazten duen hilabete batzuk direla eraso ekingintza armaturik ez burutzeko erabakia hartu zuela», baina ez du zehatza erabakiaren iraupena eta «su-etena» hitza ez du erabili. Erabaki hori Euskal Herriaren «askatze borrokan» eta «prozesu demokratikoa» abiarazteko bidean kokatzen du, eta ildo horretatik, «gatazkaren konponbide demokratikoaren» aldeko «konpromiso» berretsi du. Hain justu, «prozesu demokratikoa» abiaraztea Espainiako Estatuaren borondatearen menpe jarri du: «ETA prest dago, gaur atzo bezala, Espainiako gobernuak borondatea izanez

gero, prozesu demokratikoa abiarazteko beharrezkoak diren guxtiengo demokratikoak adosteko», dio.

Era berean, horren guztiaren berri nazioarteko komunitateari eman dio eta eskaera ere egin dio komunitate horri: beren «borondate eta konpromisoari ardura historikoz» erantzuteko. Halaber, «erantzukizunez» jokatzeko deia egin die «eragile politiko, sozial eta sindikalei», eta erantsi, «benetako konponbidea» Euskal Herriaren eskubideak «ezagutu eta bermatzean» gertatuko dela. «Prozesu demokratiko baten eszenatoki iritsi ahal izateko Herri bezala urrats sendoak ematea ezinbeste-

koa dela. Herriari hitza emateko prozedura finkatzea nahitaezkoa dela. Euskal Herriaren eskubideak ezagutuak eta bermatuak izango direnean irekiko baitzaigu gatazkaren benetako konponbidearen atea», dio hitzez hitz.

Hamairu hilabete atentaturik gabe

Iazko uztailearen 30ean egin zuen azken atentatua ETAK: Carlos Saez de Tejada eta Diego Salva Lezaun guardia zibilak hil zituen Mallorcan (Herrialde Katalanak), haien autoan lehergailua ezarririk. Orduetik ez du beste atentaturik egin, baina iragan martxoaren 16an ETAKo kideek enfrontamen-

dua izan zuten Paris alboko Dammarie-les-Lys herrian, auto lapurreta baten ondorioz, eta tiroketan Jean Serge Nerin jendarmea hil egin zen eta Joseba Fernandez Aspurz atxilotu egin zuten. Nolanahi ere, ETA erakundeak agertu zuen tiroketa ez zutela eurek hasi, eta ez zutela jendarmeei eraso egiteko asmorik.

Hainbatetan egin ditu ETAK epe laburreko menia aldarrikapenak, edo bere ekingintza armatuetatik lurralde edo kolektibo jakinak salbuestekoak, baina hiru dira orain arte eman dituen su-etenen zabalak: 1989ko urtarrilaren 8koa, 1998ko irailaren 16koa eta 2006ko martxoaren 22koa.

Esperotako erreakzioak ETAREN agiriari buruz



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Alegia.** Txintxarri elkarteak Txintxarri Eguna ospatuko du hilaren 11n eta bazkideek bazkaria izango dute elkartean bertan. Izen-ematea, elkartean egin ahal da.
- **Ikaztegieta.** Aerobik ikastaroa izango da Kiroldegian, astelehen eta asteazkenetan 19:00etatik 20:00etara eta ostegunetan 20:00etatik 21:00etara. Izen emateko udaletxera edo Kiroldegira deitu behar da.
- **Tolosa.** La Jara elkartearen Kultur Astea izango da igandera bitartean. Antolatzailea: La Jara Extreme-durako Etxea.
- **Tolosa.** Hilaren 10, 11 eta 12an Iparaldean arroiak jaistera joateko aukera dago Oargirekin. Hilak 10ean, ostirala, Tolosatik aterako dira Logibar-eko aterpean lo egitera. Larunbatean, Phista-ko arroiak jaitsiko dute, eta aterpetxera bueltatu lo egitera. Igandean, Ourdai-biko arroiak jaitsi eta Tolosara bueltatuko dira. Izen-ematea: info@oargi.org edo 688 69 86 42.

Erakusketa

- **Tolosa.** Kubako haurren margo-lanak daude Lanbroa tabernan ikusgai, Cuba y palante elkartearen ekimenez. Hilabete osoan egongo dira bertan.
 - **Tolosa.** Edurne Pasabani buruzko erakusketa Aranburu jauregian: materiala, argazki, irudi eta hurrek egindako marrazkiak ikus daitezke, besteak beste. Igandera arte egongo da ikusgai.
- » **GUARDIAKO FARMAZIAK**
- **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
 - **Lekunberri.** Mendia M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Ikuspegi ederrak Suitzatik



ALEGIA

Saint Moritzeko (Suitza) lakuan ateratako argazkia bidali du Pili Garmendiak XII. Hitza Argazki Lehiaketan parte hartzeko. PILI GARMENDIA

A Agurrak

agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>